

Kontxita Anduaga Lamariano

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1923-2021)*

Aurkibidea

Biografia



1923an jaiotakoa Antzuolako Tejerokua etxean. Herriko eskolan ikasi zuen eta gazterik hasi zen etxetik kanpo lanean. Oso buru ona du eta antzinako bizimoduaren gaineko azalpen interesgarriak eman dizkigu.

Zintak

ANT-059

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Data:** 2005-07-04
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ANT-061

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-07-13
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-062

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-07-13
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

ANT-126

- **Proiektua:** Antzuolako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pavo Nuñez, Kristina
- **Data:** 2004-01-01
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** Mini Disc

Pasarteak

1. Herriko eskola; eskola txikia

- **Erref:** ANT-059/008
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:11:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bera umea zeneko irakasleak: don José Gonzélez eta don Elías Pascual. Lehenengo, eskola txikira joaten ziren, sei urtera arte. Han gehienbat jolastu egiten zuten. Zazpi urterekin, eskolara pasatzen ziren. Alfonso XIII.aren argazkia zegoen bertan.</p>

Transkripzioa

-Herriko eskolia esan dozu eta akordatzen zara irakaslia edo maistrua zein zan?

-Don Jose Gonzalez bat, eta bestia Elias Pascual. Bixekin ibili nintzan. Don Elias Pascual eta bestia don Jose Gonzalez.

-Eta zelan gogoratzen dozuz? Zelakuak zian? Gogorak?

-Ba, ba. Honek (emakumeenak) gogorrauak. Guk hainbestekuak. Bai lelengo maistrua eta bigarrena be bai. Eta honen..., andra bat "armas

tomar".

-Orduan suertia euki zenduen zuek.

-Bai.

-Zenbat urtekin hasi zenduan eskolia, gutxi gorabehera?

-Ba zazpikin edo. Lelengo txikixak eskola txikixan. Seikin orduan. A-e-i-o-u eta. Gero bazeren hola bat, bi, hiru, kontatzen, hamar, hogeitako hola biribil batzuk, eta han bat, bi, hiru, lau... Eta kontatzen ikasi.

-Eta eskola txikixan euskeraz eitten zenduen?

-Bai, eskola txikixan bai. Gurekin ibilli zan maistriak erderaz be ez zekixen.

Cecilia: Bertako emakume bat.

(...)

-Eta eskola txikixan orduan ze hasten ziñazien, sei urte...?

-Bai, sei urte arte. Sei urtetik zortzira arte. Gero zazpi zortzikin beste eskolara.

Kontxita: zazpirako bai, seikin ez.

-Eta hor eskola txiki horretan ze ikasten zan, letrak edo?

-Etxetik bialdu eta hantxe. Bat, bi, hiru, lau, holakoxiak kontau, eta gero maistriak kontun batzuk esaten ba[zeban], ez dakit.

Cecilia: maistria ez zan tituloduna.

-Bertako emakume bat ume txikixak erabiltzeko.

-Ze izen zekan?

Cecilia: Maria.

(...)

-Eta eskola txiki hori nun zeuan?

-Aldamenian. Txikixaua. Bestia altuaua. Oin dana bat dao, baina haura txikixaua.

Kontxita: oin guarderixia badao ba. Ba txikixaua, teillatua bajuaua.

Holakotxe lokal bat zan, oingo komidadeik ez zeuan. Zeretzen bankuak.

Bankutan jartzen giñan eta haretxei eraitten: bat eta bi eta hiru eta lau.

Kantun batzuk eingo giñutzen.

Cecilia: errezatzia izengo zan gehixen orduan. Otoitzen batzuk izengo zien gehixen.

-Eskolan [apaiz] edo zerik. Orduan ez. Republikia be bazauan eta orduan ez euan... Erregia zeuala sartu nintzan ni eskolan. Erregia, "Alfonso Trece" eskolan, kuadrúa, e. "Alfonso Trece".

-Hori eskola txikixan?

Kontxita: Eskola txikixan ez, eskola txikixan ume zaintzia.

-Bat zan Riojakua, Elias Pascual, Harokua edo. Eta bestia Valladolidkua edo Salamankakua edo, ez dakit nungua zan.

-Alfonso Trecearen erretratua zeunken bertan; zeozer egin behar izaten zenduen, goizian errezuren bat?

Kontxita: Ez. Gero Franco etorri zanian, gero bai. Baiña bestela ez.

2. Marrazketarako zaletasuna

- **Erref:** ANT-059/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:16:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Marrazketarako esku ona zuen Luisek.</p>

Transkripzioa

-Gauza asko ikasten zenduen, eta esan dozu mapak edo?

-Bai, mapak.

-Kontxita: Baiña zuk dibujuak ederrak eitten ziñutzen, Luis. Harek, ez zan arkitektua? [Antigua-errotako] Migel. Eta "con este chaval se puede sacar, este chaval puede salir adelante". Gero gerria tokau zan eta kitto. Baiña linealak edo, zela eitten ziñutzen. Neri dibujua ez jatan gustatzen, baiña honi asko. Eta honek asko eitten zebe. Eske orduan eskola bukaeran ipintzen zan zein zan, eta aiuntamentua-eta juaten zien ikustera.

-Ze lan ein giñuan...

-Klaro. Orduan behintzet itxuroso...

(...)

-Dibujua nun emuten ziñuen, eskolan bertan ala aparte.

-Eskolan bertan. Eskolan dana [ikasten zan]: Gramatika, Geometria edo, dibujuak be bai, danak hantxe.

Kontxita: Gero handikan dotriñara.

3. Eskola kontuak; umetako jolasak

- **Erref:** ANT-059/012
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Oporrak, gaur baino gutxiago. Ostegun arratsaldetan jai izaten zuten. Umetako jolasak: bule-buleka; "txirringilletan", etab. Kurtsoa amaitu aurretik, inspektorea pasatzen zen.</p>

Transkripzioa

-Orduan eskolan ze bakaziño eukitzen zenduen?

-Hillebete uste dot tokatzen zala; ointxe bezelaxe. Oin gehixao. Agostua behintzet, agostua bai.

-Eta Gabonetan-eta jairik eukitzen zenduen?

-Ez. Gabon eguna eta bai. Bestela ez.

-Orduan opor gutxitxuao, ez?

Cecilia: Baiña gero kalian jolasian denpora guztian.

-Eta gero astian zihar eukitzen zenduen eguen atsaldetan jai?

-Bai, eguen atsaldian. Oiñ asteazkena izaten dabe, [...] eskolak. Baiña orduan osteguna.

-Eta zer eitteko aprobetxatzen zenduen?

Cecilia: basarriko lanak eitteko aprobetxau bihako zebe, ittulan eiñ eta. Kalekuak frontoera pelotara eta.

-Antxintxika eta.

Kontxita: Jolasian. Bule-buleka eta, kalderonka eta.

-Eta gero bageunzkan txirringillak. Harekin kilometruak pasatzen giñutzen, e. Hemendik Deskargara ez, baiña beheraiño, aldaparaiño bai, txirringilletan.

Kontxita: Jausi barik haura hantxe.

-Bakaziñuak esan dozu. Klasiak amaittu aurretik inspektoria agertzen zan?

Kontxita: Bai, bai. Guri etortzen jakun...

-Maistruai eta hainbeste ez. Neskai gehixao uste dot.

-A bai?

-Han egoten zien norberan izenakin ipinita paretan, kristalian. Eta "Luis Anduaga". Baten mapia, hurrenguan beste zeren bat. Zer zeuan dibujan eitteko ba hauraxe ein eta.

Kontxita: "A ver, venir aquí". Eta tapa!, preguntia. Maistria atzekaldetikan (ahopean berbetan).

-Maistriandako inportantia izengo zan.

Kontxita: Klaro. Eta oindiokan inspektore batek esan zebana. Edurnek orduan larogei ume ei zeuzkan, e! Eta joan zanian esan ei zeban: "Hoy he estado en Anzuola, qué bien preparados los niños con una profesora que tenía ochenta niños!" Bai hoixe.

Cecilia: Estaban en el ayuntamiento porque estaban haciendo las escuelas entonces.

Kontxita: Klaro. Oiñ esaten dabe gogorra zala. Biheko. Baiña ikisi.

(...)

Cecilia: askoz geruagokua da hori. Haura izen da gure alaben eta maistria. Oseake hori da askoz geruagoko kontua.

-Orduan inspektoria pasatzen zan?

-Bai.

-Ez urtero, baiña...

Kontxita: Nik uste dot baietz.

-Eta zer izaten zan, ume bakoitzari esamiñ txiki bat edo, pregunta batzuk edo?

Cecilia: Nik uste dot globalmente...

(...)

4. Erdara gutxi zekiten umetan; San Nikolas eguneko kanta

- **Erref:** ANT-059/013
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:25:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Antzuolako umeek erdara gutxi zekiten garai hartan, eta eskolan dena buruz ikasten zuten, baina ezer ulertu gabe. San Nikolas egunean mutikoak eskean irteten ziren, eta orduan abesten zuten kanta bat gogora ekartzen dute. Euskaraz hitz egitearren zigorra. Baserriko umeak vs. kaleko umeak.</p>

Transkripzioa

Cecilia: han be ba erakutsi berdiñakin ointxe bezelaxe berdin ezin.

Erantzuteko orduan be, nahiz jakin, igual espresatzen be jakin ez, zegatik erderaz, hamengo jendiak ez zekixen erderaik, epoka horretako jendiak.

Oseake eskola batere erderaik jakitke.

-Behintzet erderaz eitten giñuan [...] "Hay que aprender"!

-Baiña gauzak buruz ikasteko eta...

Kontxita: "Como loritos", dana buruz ikisi. Hara! Kantu bat kantauko dotsut, zuek kantatzen ziñuen mutillak. Pentsa eizu zelako antza emoten gontsan: San Nikolas egunian mutikuak ertetzen zeben poltsiak eta dirua emoten

zotsen. Eta pentsa eizu: "San Nicolás, san Nicolás coronado/ arsobispo muy honrado/ san Vicente san Vicente/ tu hermano mi pariente/ si nos dabis/ no nos dabis/ akillando ketastoris." Aber, "si nos dais o nos dais, aquí no nos detengais." Baiña antza, "si nos dabis no nos dabis akillando ketastoris." Pentsa eizu, ze esan nahi dau horrek? Ba guk ez genkixela, eta antzai mantza emon eta kantau; eta "ya está". Guk euskeraz genkixen eta.

-Ahalegiña eitten ziñuen baiña?

Cecilia: Derrigor ikisi biher zan, bestela kastigua zeuan.

-Kastigua, e?

Cecilia: Bai, bai. Zapatuan, nere denboran eta nere maestriak behintzat bai. Atzenengo zapatuan euskeraz eitten zebana, soka bat, narru zati bat izeten zan, zegatik nola zaren hemen kurtiderixak, soka haretan koillarra balitz bezela, haura astebarren guztian eruan bihar zeban kalia eta danian; ba haura gaizki ein zebala, euskeraz ein zebala jakitteko. Eta basarrikuak gutxiao etortzen zien eskolara, eta kalia ba beti erdera gehixao; erdeldunak be etorritta igual hemen baten batzuk.

Kontxita: haretxekin ikisi giñutzen guk.

Cecilia: harek eta kalekuak puxkat; erdeldunak-eta, batzuk beranizatza etorritta. Gero langilliak-eta; gero kurtediri-fabrikari be erdeldunak nausi batzuk edo etorri zien-eta; haren bittartez puxkat gehixao jakin. Gero kalekuak ze eitten zebeñ? Ba ala! Hari basarrikuai esan erain atzenengo orduan euskeria, eta beti basarriku bat kordoe haura txintxiliz zebala. Orduan be ba malizia. Kalekuak beti erderia gehixuao jakin basarrikuak baiño. Zegatik basarrikuak eurixa zanian bakarrik igual etortzen zien eskolara, zegatik bestela etxian lana ein bihar zebeñ, ittulan edo laguntzen edo umia zaintzen edo.

Kontxita: Basarritar azkarrak be ez danak.

Cecilia: Danerakuak.

Kontxita: Maria Irala Torrekua eta, Juanita [...] eta, matematiketan eta.

Harek ez zebeñ faillatzen, e!

Cecilia: Baiña harek beti etortzen zien eskolara. Baiña beti egoten zien batzun batzuk.

-Orduan beti basarritaren bat sokatxuakin?

Cecilia: Bai, beti sokatxuakin.

-Eta orduan kastigu hori ze izeten zan? Astebarru guztian e...

Cecilia: Astebarren guztian. Zapatua eta domekia. Ia hurrengo astelehenian eskolara juandakuan haura kendu eta "ya está". Hurrengo zaturako ba aber besten bat. Besten bat... enkajau. Hola ikisi giñuan erderaz. Ondo edo geizki, ikisi giñuan behintzat. Entendidu ez, ikisten giñuana buruz ikisi. Buruz ikisi lorituan moduan.

Kontxita: faillau ezkeror korrikia, ia ezin.

Cecilia: Gero oin urtiekin ikasi ze esan nahi zeban. "Por lo menos" gauzaik gehixenak.

(...)

5. Euskara vs. erdara; debekuak

- **Erref:** ANT-059/014
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:25:15. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Erdaraz nola ikasi zuten. Kaleko umeak eskolara gehiago joaten ziren; kalean ere erdaldun gehiago, etab. Garai batean, erdaraz egitea dotoreagoa zen. Antzuolan egondako maisu-maistrak. Gerra garaian, Oñatin desterratua izan zen irakasle euskaldunaren inguruko aipamenak.</p>

Transkripzioa

Kontxita: Guk basarrikuak baiño gehixuao ikisiko giñuan euskeraz...

Cecilia: Egunero jua. Egunero jun. Basarrikuak gehixao faillau.

-Kalian egunero kanpotarrei entzun...

Kontxita: harek ez zekixen euskeraz, eta betik euskaldunak klaudikau bihar, e. Erak euskeraz ez zebe ikisten, eta guk erderaz ikisi eitten giñuan.

Cecilia: Orduan ba erderaz eittia... Ez dakit, uste dot izen zala epoka bat hola elegantiaua edo. Euskeraz bakarrik zekixena, "ze basarritara" edo "qué casera" erderaz esaten zan.

(...)

-Orduan eskolan erderaz ein bihar?

Cecilia: Hamen sekula ez da egon maixo eta maistra euskaldunik, sekula be ez da egon.

-Beti kanpotarrak?

Cecilia: Beti kanpotarrak, esan daben Edurne hori etorri arte.

-Baina hori gerora...

Cecilia: Hori bertakua zan. Oñatiarra zan, abertzalia zan, bizi da [oinddio].

-Orduan mutur batetik bestera pasauko zan...

Kontxita: Kartzelan haura Zamoran egon zan kastigauta. Persona on bat izetetikan, ez dakigu zertan hartu zebe, eta fuera! Lelengo kartzelan; lelengo illia moztu eta herrixan pasiau eta gero kartzelara; eta gero horraittikan konsegidu zeban etortzia. Harek, pentsa eizu, euskeria ta...

-Orduan zer egon zan, desterrauta edo?

-Bai.

-Ze urte ingurutan izan zan hori?

Kontxita: Ba hori gerra ostian.

-Ulia moztu eta egin zetsena?

Kontxita: A, hori? Treintaiseisian erten zeban, hamen treintaiseisian sartu zien, ezta, Antzuelan?

-Bai. "Septiembre veintidós".

-Ulia moztu zotsen. Eta esan dozu kaletik zihar pasiau?

Kontxita: Umillaziño gehixao ze nahi dozu ba? Antzuolan ez, hori Oñatin. Hauraxe etorriko zan lelungoko maistra euskalduna. Bueno, Mari Zugasti be.

-Aurretik Azkaraten hor zeren doña Blanca eta.

Kontxita: Ni harekin ibili nintzan. Eta itxuria danez karlistia izengo zan, eta gu ez giñan ba klase horretakuak.

-Ni don Elias eta don Jose. Bat Harokua eta bestia ez dakit Valladolid edo Salamanka edo.

6. Umetako jolasak

- **Erref:** ANT-059/015
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Umetako jolasak. Txirikila; bule-buleka; kalderonka, etab. Intxaur garaian, potxo-potxoka. Garizuman, kalderonka egiten zuten. Mutilak, pilotan ere ibiltzen ziren.

Transkripzioa

-Astian zihar eskolia amaitzen zanian arratsaldian?

Cecilia: Jolasian.

-Bai, pelotara eta. Gero hortxe plazan txirringilletara. Zela esaten jako hari? Izena be ahaztu jat.

(...)

-Gero intxaur-denporan eta. Intxaur-denporan "potxo-potxoka", eta beste zeroi...

Cecilia: Guk basarrikuekin hor, guk hartu bihar izeten giñutzen lurrian zerezten intxaurrak. Eta itxuria harek hutsak izengo zien.

Kontxita: bai, geixuak.

Cecilia: Eta esaten gotsan "saltakaiñuak", saltoka. Eta klaro, potxo-potxoka eitteko harek salto eitten zebe, ezin sartu zulu. Eta basarritarrak zeukanai esaten gotsan "madria", bla! Eta betia. Eta eskolara juandakuan igual jakin ez harek haura, leziño haura edo, problema haura edo. "Erakutsiko dotsut, baiña intxaur "madria" ekartzen bozu". Ekarri eta guk erakutsi. Bai ba, trukia.

-Holaxe pasatzen zan denporia. Intxaur denporan intxaurrekin.

-Zer egoten zan, sasoi bakoitzian jolas bat? Intxaur denporan...

- Intxaur denporan intxaurrekin. Intxaurra bai, eta zuk haura jotzen, haura jotzen bozu zeuretako intxaur haura.

Cecilia: Bai, zulu sartu edo, gerturatu edo.

-Ez, jo, jo in biher.

-Garizuman ze jolas eitten zenduen?

-Garizuman? [...] Elizan.

-Txirikilliakin edo?

Cecilia: Kalderonka guk esaten gotsan.

-Ze izeten zan, urte guztian edo?

-Cecilia: Ez eukitzen zittuen bere epokak, tortoloska neskak eta.

Kontxita: Bi harri, eta hola ipiñi, eta bat hola txikixa bi puntakin, eta haundixakin tak! Salto ein zerian, ahal bazan pasau, baiña bestela gertuen.

Eta hemen baldin bazan txikixak, txikixak egoten zien asko eta. Zenbat esaten dozu? Eta txikixak berrogeta hamar igual edo hoge. Haundixak baldin bazien ez ziñalako harutz aillegau, ba haundixa halako palua izeten zan eta bestia halakua. Harekin be guk asko...

Cecilia: emakumiak, gehixao emakumiak nik uste dot. Mutillak ez dakit ibiltzen ziñaten kalderonka.

-Bai, bai. Bai uste dot. Guk pelotan eta. Pelotan gehixao.

7. Pilotarako zaletasun handia

- **Erref:** ANT-059/016
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Futbolean baino gehiago, pilotan egiten zuten. Futbol-zelaia, gaur dagoen tokian zegoen orduan ere.

8. Frontoi ingurua nolakoa zen

- **Erref:** ANT-059/017
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:36:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Frontoi ingurua nolakoa zen. D. Jose Maria Agirreren txaleta; Altos Hornoseko injenieriarena zen. Bolalekua; idi-probak egiteko harria...

9. Neska-mutilen jolasak

- **Erref:** ANT-059/019
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:37:10. **Bukatu:** 00:38:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak. Neska-mutilen jolasak. Txorro-morroka...

10. Errekara, mendira umetan

- **Erref:** ANT-059/020
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:38:45. **Bukatu:** 00:40:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

<p>Errekan amurrainak harrapatzen zituzten. Mendira umetan. Toponimia.</p>

11. Erlijioa errepublika garaian

- **Erref:** ANT-059/021

- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:42:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Dotrina kontuak. Errepublika garaian eskolan ez zen dotrinarik ematen.</p>

12. Hezkuntza errepublika garaian

- **Erref:** ANT-059/022
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:42:25. **Bukatu:** 00:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

<p>Hezkuntza errepublika garaian. Erljio arrasto guztiak kendu ziren eskoletatik. Niceto Alcalá Zamora Antzuolatik pasatu zen.</p>

13. Dotrina kontuak

- **Erref:** ANT-059/025
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren jarrera
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Dotrina kontuak. Errepublika garaian eskolan ez zen dotrinarik ematen. Euskara eta erdaraz ikasi zuten dotrina.

14. Baserriko eta kaleko umeak eskolan

- **Erref:** ANT-059/027
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:48:30. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Baserriko eta kaleko umeak eskolan. Gerraosteko egoera.

15. Baserriko umeak eta eskola

- **Erref:** ANT-059/028
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:52:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Baserrietan, familia handiak egoten ziren eta umeak sarritan eskolara joan gabe gelditzen ziren. Hileta-elizkizunak zeudenean ere, eskolara joateke gelditzen ziren baserriko umeak.</p>

16. Dotrina kontuak; abadeak

- **Erref:** ANT-059/029
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:52:05. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Dotrina kontuak. Jaunartzea egiteko abadearen galdera guztiak zuzen erantzun behar ziren, bestela, "kalabazero" esaten zioten umeari. Antzuolan garai batean bost abade egon ziren. Azkenengo urteetan egondako aldaketak.</p>

17. Garai bateko Antzuola

- **Erref:** ANT-059/030
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:53:35. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Garai bateko Antzuola nolakoa zen. Udal langileak. Aurrezki kutxa.

18. Ohitura zaharrak: argizaiolak; Domu Santuko opilak

- **Erref:** ANT-059/037
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:59:25. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Argizaiolak; serorak. Domu Santuko opilak. Ohitura zaharrak.

19. Jende asko Soraluzera lanera

- **Erref:** ANT-060/016
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Soraluzera joan zen lanera, "Fábrica de cuchillos"-era. Hasieran trenez joaten ziren; gerora autobusez. Herritik mutil asko joaten ziren bertara.

20. Antzuolatik Soraluzera lanera

- **Erref:** ANT-060/018
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:32:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Soraluzera joan zen lanera, "Fábrica de cuchillos"-era. Bertako lana nolakoa zen; zer egiten zuten. Produkzioaren zati handi bat nora saltzen zuten.

21. Neska asko lantegietan

- **Erref:** ANT-060/019
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:33:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Antzuolatik neska asko Bergarara joaten ziren lanera. "Hilaturas de Bergara" zabaldu zutenean Antzuolan, herriko neska asko bertan geratu ziren.

22. Soraluzeko industria

- **Erref:** ANT-060/021

- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:34:20. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Industria garrantzitsuak Soraluzen. Atxotegi, Amutxastegi, etab. Lantegi asko herritik kanpo joan ziren.

23. Gerraosteko egoera ekonomikoa; kanpotik jende asko bertara lanera

- **Erref:** ANT-060/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:37:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Gerraostean egiten zen guztia saltzen zen. Kanpotik jendea etortzen hasi zeneko kontuak. Kanpotar batek oporretatik bueltan lagun gehiago ekartzen zituen berarekin. Kanpotarrak langileak izan dira eta segituan atera zuten bizimodua aurrera.

24. Industriaren gorakada 60. hamarkadan

- **Erref:** ANT-060/023
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:37:20. **Bukatu:** 00:39:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

60. hamarkadatik aurrera, industriak demaseko gorakada izan zuen. Beharbada kalitate gutxiko produktuak, baina irteera zutenak.

25. Inguruko herrien arteko hartu-emana

- **Erref:** ANT-060/027
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:42:30. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

<p>Herrien arteko lehia. Antzuola eta Bergara. Gaurko egoera zein den. Orain

Bergararik doaz Antzuolara lanera. Lehenago, gainera, inguruko herriekin ez zegoen horrenbesteko harremanik; jai egun berezietan bai, baina bestela bakoitza bere herrian geratzen zen. Emakumea lan-munduan betidanik.</p>

26. Antzuola inguruko euskalkiak

- **Erref:** ANT-060/028
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:47:00. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara desberdinak inguruko herrietan. Euskalkiak. Erdaraz egiteko joera. Lehenago jende asko Arabara joaten zen erdaraz ikastera.

27. Antzuolako ehulea

- **Erref:** ANT-061/001
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Antzuolako ehulea.

28. Antzuolako kaleak

- **Erref:** ANT-061/006
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Antzuolako kaleak; herrigunea. Kalebarren, Bustinzuri... Antiguako auzoa.

29. Antzinako bizimodua

- **Erref:** ANT-061/008
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:07:05. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Konfiantza handia jendearen artean; giltza beti atean ipinita.

30. Etxe zaharren egitura

- **Erref:** ANT-061/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:45. **Bukatu:** 00:11:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Lehenagoko etheen egitura. Komuna balkoian egoten zen.

31. Baserriko umeak eskolara; janztetxeak

- **Erref:** ANT-061/011
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:11:25. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Antzuolako medikuaren inguruko kontuak. Baserriko umeak kongregaziora edo eskolara joateko goizean goiz esnatzen ziren eta kaleko umeak baino puntualago heltzen ziren. Janztetxea.

32. Elizaren indarra gizartean

- **Erref:** ANT-061/012
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:13:30. **Bukatu:** 00:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Elizaren indarra gizartean. Zigorrak, debekuak... Kongregazioetako kontuak. Gaztetako ibilerak.

33. Gaztetako ibilerak

- **Erref:** ANT-061/013
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:17:30. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gaztetako ibilerak. Neskek ez zuten dirurik izaten, baina behar ere ez. Mutilak izaten ziren dantza egiteko zerbait ordaindu behar zutenak.

34. Etxeen gaitzizenak; Antzuolako errementaria

- **Erref:** ANT-061/014
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:18:25. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Etxe gehienek izena edo gaitzizena izaten zuten. "Errementarikua". Errementariaren lana. Perratzailea non zegoen. Petricio Echevarria.

35. Herriaren egitura; larru-ontze lantegiak

- **Erref:** ANT-061/016
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Herriaren egitura, kaleak. Larru-ontze lantegiak non zeuden. Arbulu; Olanan; Bareño Telleria. Lantegien inguruko azalpenak; egiten zituzten lanak.

36. Larru-lantegiak Antzuolan

- **Erref:** ANT-061/018
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:29:45. **Bukatu:** 00:32:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Telleriarenean egiten zituzten produktuak. Beste larru-lantegiak. Olanan lantegiaren inguruko azalpenak.

37. Larru-ontze lantegiak

- **Erref:** ANT-061/024
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:43:35. **Bukatu:** 00:44:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza

Laburpena:

Larru-ontze lantegietan erabiltzen ziren produktuak kimikoak ziren eta gerora kalte handiak eragin ditu langileen osasunean.

38. Herriko eskola; irakasleak

- **Erref:** ANT-061/026
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:47:00. **Bukatu:** 00:51:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Herriko eskola. Eskola txikia; eskola handia. Neska-mutilak banatuta ibiltzen ziren. Gela bakoitzean, adin desberdinetako umeak. Gerra zibila hasi zenean, eskola itxi egin zen. Irakasleen inguruko azalpenak. Dora Goñi irakaslea. Klaseak erdaraz ematen zituzten.

39. Eskola kontuak; liburu bakarrean dena

- **Erref:** ANT-061/027
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:51:25. **Bukatu:** 00:53:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola kontuak. Liburu bakarra erabiltzen zuten eta bertan agertzen ziren ikasgai guztiak.

40. Eskola kontuak: inspektorea

- **Erref:** ANT-061/030
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:57:20. **Bukatu:** 00:59:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolako inspektorea etortzen zenean, larri ibiltzen ziren.</p>

41. Eskola kontuak: buruz ikasi beharra

- **Erref:** ANT-061/031
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:59:10. **Bukatu:** 00:59:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola kontuak. Buruz ikasi behar izaten zituzten gauzak.

42. Zigorrek eskolan

- **Erref:** ANT-061/032
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:59:35. **Bukatu:** 01:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrek

Laburpena:

<p>Zigorrek eskolan. Euskararen inguruko debekuak. Cara al Sol.</p>

43. Baserriko umeak eta eskola

- **Erref:** ANT-061/034
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:01:20. **Bukatu:** 01:02:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Baserriko umeak gutxiagotan joaten ziren eskolara. Elizkizunak zeudenean, gurasoak elizara joaten ziren eta umeak etxean gelditu behar izaten ziren.</p>

44. Erdaraz nola ikasi zuten

- **Erref:** ANT-062/002
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:05:50

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara eta erdararen inguruko kontuak. Kanpotarrak uda pasatzera etortzen ziren Antzuolara, eta familia haietako umeekin ikasi zuten erdaraz.

45. Umetako jolasak; erre kara bainatzera

- **Erref:** ANT-062/004
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:07:35. **Bukatu:** 00:10:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: "txuntxurriska"; sokasaltoan; pilotan... Errekara joaten ziren bainatzera.

46. Umetako jolasak; kaleko eta baserriko umeak

- **Erref:** ANT-062/005
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:11:45

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Umetako jolasak. Intxaurrekin egiten zituzten jolasak. Kaleko eta baserriko umeen arteko harremana.

47. Umetako jolasak; "txuntxurriska"

- **Erref:** ANT-062/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:15:50

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: "txuntxurriska" nola egiten zuten; "orratz-orratzka".

48. Dotrina Errepublikara garaiak

- **Erref:** ANT-062/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:17:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Dotrina txikia eta handia. Euskarazko dotrina. Errepublika garaian dotrinarik ez zuten ematen eskolan.

49. Niceto Alcalá Zamora Antzuolan

- **Erref:** ANT-062/009
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:17:25. **Bukatu:** 00:19:25

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Errepublikara garaietan, Niceto Alcalá Zamora pasatu zen Antzuloatik. Neskato batek lore sorta bat eman zion. Errepublikanoak Antzuloan.

50. Kale izendegian aldaketak

- **Erref:** ANT-062/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:19:25. **Bukatu:** 00:21:25

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Gerraostean egondako aldaketak kale izendegian. Bustinzuri kaleari Agustin Telleria izena ipini zioten. "Margaritak".

51. Dotrina; Pazkoko txartela

- **Erref:** ANT-062/012
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:24:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Dotrinaren inguruko azalpenak. Pazkoko egiteko txartela jaso behar zen.

52. Elizaren eragina gizartean

- **Erref:** ANT-062/013
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:24:55. **Bukatu:** 00:28:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Abadearen indarra herrian. Medikua, udaleko idazkaria... garrantzi handiko pertsonak herrian. Misioak; garizumako sermoiak... Fraideak Arantzazutik etortzen ziren sermoiak ematera. Aste Santuan tapatu egiten ziren. Kanpairik ez zen jotzen Pazko egunera arte. "Matrakia".

53. Elizaren eragina gizartean; prozesioak

- **Erref:** ANT-062/014
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:28:00. **Bukatu:** 00:30:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Aste Santuko prozesioak. Maristen prozesioa. Elizako hilarriak. Bizimodua nola aldatu den.

54. Domu Santuetako ohiturak

- **Erref:** ANT-062/015
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:30:25. **Bukatu:** 00:32:25

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Domu Santuetako olatak. Egun hartan abesten zuten kanta. Umetako okerkeriak.

55. Domu Santu Eguna; ohitura zaharrak

- **Erref:** ANT-062/016
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:32:25. **Bukatu:** 00:35:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna

Laburpena:

<p>Domu Santu Eguna. Olatak. Manta beltza hilarrian urtean zehar hildakoren bat egon bazen familian. Mantilak. Ondra-jana.</p>

56. Klase desberdinetako hileta elizkizunak

- **Erref:** ANT-062/017
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:35:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Klase desberdinetako hileta-elizkizunak.</p>

57. Auzo bakoitzak bere janztetxea

- **Erref:** ANT-062/018
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:35:50. **Bukatu:** 00:37:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:

Janztetxeak. Auzo bakoitzak bere janztetxea izaten zuen.

58. Auzoetako ermitak

- **Erref:** ANT-062/019
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:37:30. **Bukatu:** 00:39:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Auzo bakoitzean ermita bat zegoen. Ermitako santuaren irudia etxerik etxe ibiltzen zen. Heriotzaren inguruko ohitura zaharrak. Elizakoak.</p>

59. Heriotzaren inguruko ohitura zaharrak

- **Erref:** ANT-062/020
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:39:10. **Bukatu:** 00:41:35

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Heriotzaren inguruko ohitura zaharrak. Andariak. Hildakoaren aurretik emakume bat otarre batekin buruan. Gaubeila.</p>

60. Erlijioaren indarra; linboa

- **Erref:** ANT-062/023
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:43:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Linboa, bataiatu gabe hiltzen ziren umeentzat izaten zen. Erlijioaren indarra.</p>

61. Kongregazioen inguruko kontuak

- **Erref:** ANT-062/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:44:05. **Bukatu:** 00:46:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Kongregazioak. Hijas de María kongregazioa. Hilean behin elkartzten ziren eta abestu eta errezzatu egiten zuten. Dantza egitea bekatua izaten zen. Erlijioaren indarra gizartean.</p>

62. Garizuma; San Isidro eguneko ospakizunak

- **Erref:** ANT-062/027
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:46:35. **Bukatu:** 00:48:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Dantza egitea bekatua izaten zen. Garizuman, musikarik ez. San Isidro eguneko ospakizunak.

63. Dantzaldiak Antzuolan

- **Erref:** ANT-062/028
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:48:15. **Bukatu:** 00:49:25

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Dantzaldia non izaten zen udan eta neguan.

64. Margaritak; poxpolinak

- **Erref:** ANT-062/029
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:49:25. **Bukatu:** 00:50:20

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

"Margaritak", karlistak. Txapel gorri eta borla horiarekin joaten ziren. Poxpolinak, abertzaleak. Dantzak, antzerkiak... antolatzen zituzten poxpolinek.

65. Batzokia Antzuolan

- **Erref:** ANT-062/032
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:52:30

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Batzokia Antzuolan. Emakume Abertzale Batza. Antzerkiak eta bestelakoak egiten zituzten. Bergarako abertzaleak. Monzon.

66. Telesforo Monzon

- **Erref:** ANT-062/033
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:52:30. **Bukatu:** 00:54:10

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Monzon nolakoa zen. Antzuolara sarritan etortzen zen.

67. Antzuola inguruko mendi-erromeriak

- **Erref:** ANT-062/035
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:58:15

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Mendi-erromeriak: Pagomendi, Elosu... Alde guztietara oinez joaten ziren, mendiz mendi. Neska-laguntzea.

68. Gaztetako ibilerak

- **Erref:** ANT-062/036
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:58:15. **Bukatu:** 00:59:10

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gaztetako ibilerak.

69. Kanpai klaseak

- **Erref:** ANT-062/037
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:59:10. **Bukatu:** 01:01:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Kanpai izenak. Kanpai klase desberdinak. Su-kanpaia; hil-kanpaia.</p>

70. San Nikolas eguneko diru-batzea

- **Erref:** ANT-062/038
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:01:15. **Bukatu:** 01:02:30

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

San Nikolas eguneko diru-batzea. Orduan kantatzen zuten abestia. Diru-batzeak Gabonetan; Santa Ageda egunean...

Anduaga Lamariano, Kontxita | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com